


M_{LH4}

2023/2024



*Done Jakue elizaren portada. Gares
Iturria: Nafarroako Turismoa
Egilea: Francis Vaquero*

Matematikarako gaitasuna

LEHEN HEZKUNTZAKO 4. maila

Zuzentzeko koaderno

INDIZEA

I. LABURPENA.....	5
II. ZUZENDU BEHARREKO GALDERAK.....	7
III. KOADERNOA SOLUZIOEKIN	19

Honako hau da atal bakoitzaren edukia:

- I. LABURPENA

Probaren item bakoitza **zein motatakoa** den, zein duen **erantzun zuzena**, lor daitekeen **gehieneko puntuazioa**, dagozkion **oinarrizko jakintza, konpetentzia espezifiko**a eta **ebaluatutako prozesua** taula batean bildu dira.

- II. ZUZENDU BEHARREKO GALDERAK

Zuzendu beharreko item bakoitzaren **ebazpena** eta **zuzentzeko eta kalifikatzeko irizpideak**.

- III. KOADERNOA SOLUZIOEKIN

Ikasleari emandako liburuxka bera, item bakoitzaren erantzuna nabarmendu delarik.

I. LABURPENA

Matematikarako gaitasuna frogak 21 item ditu. Horietako hamalau zuzendu eta kalifikatu behar dira:

1, 2, 3, 5, 6, 7, 8, 10, 13, 14, 15, 18, 19, 21 y 22

Item bakoitza **zein motatakoa** den, zein duen **erantzun zuzena**, lor daitekeen **gehieneko puntuaketa**, dagozkion **oinarrizko jakintza**, **konpetentzia espezifiko**a eta **ebaluatutako prozesua** ageri dira taula honetan:

Itema	Erantzunaren mota	Erantzun zuzena	Gehieneko puntuazioa	Oinarrizko jakintza	Konpetentzia espezifiko	Ebaluatutako prozesua
1	Irekia	Ikus II. atala	3	Zenbakizko zentzua	Problemak ebaztea	Aztertzea eta aplikatzea
2	Irekia	Ikus II. atala	1	Zentzu espaziala	Problemak ebaztea	Aztertzea eta aplikatzea
3	Irekia	Ikus II. atala	1	Zenbakizko zentzua	Arrazoitzea eta probatzea	Arrazoitzea eta hausnartzea
4	Itxia	C	1	Zenbakizko zentzua	Problemak ebaztea	Aztertzea eta aplikatzea
5	Irekia	Ikus II. atala	2	Zenbakizko zentzua	Arrazoitzea eta probatzea	Arrazoitzea eta hausnartzea
6	Irekia	Ikus II. atala	1	Neurriaren zentzua	Problemak ebaztea	Aztertzea eta aplikatzea
7	Irekia	Ikus II. atala	2	Zenbakizko zentzua	Arrazoitzea eta probatzea	Aztertzea eta aplikatzea
8	Irekia	Ikus II. atala	1	Zentzu estokastikoa	Komunikazio eta irudikapena	Ezagutzea eta erreproduzitzea
9	Itxia	D	1	Neurriaren zentzua	Problemak ebaztea	Aztertzea eta aplikatzea
10	Irekia	Ikus II. Atala	2	Meirroarem zentzua	Problemak ebaztea	Aztertzea eta aplikatzea
11	Itxia	B	1	Zentzu espaziala	Komunikazio eta irudikapena	Ezagutzea eta erreproduzitzea
12	Itxia	D	1	Zentzu espaziala	Komunikazio eta irudikapena	Ezagutzea eta erreproduzitzea
13	Irekia	Ikus II. atala	1	Neurriaren zentzua	Problemak ebaztea	Aztertzea eta aplikatzea
14	Itxia	Ikus II. atala	1	Zentzu espaziala	Komunikazio eta irudikapena	Ezagutzea eta erreproduzitzea
15	Irekia	Ikus II. atala	1	Zentzu espaziala	Komunikazio eta irudikapena	Ezagutzea eta erreproduzitzea
16	Itxia	C	1	Zentzu espaziala	Komunikazio eta irudikapena	Ezagutzea eta erreproduzitzea
17	Itxia	D	1	Zenbakizko zentzua	Komunikazio eta irudikapena	Ezagutzea eta erreproduzitzea
18	Erdi-eraikia	Ikus II. atala	1	Zenbakizko zentzua	Loturak	Aztertzea eta aplikatzea
19	Irekia	Ikus II. atala	2	Zenbakizko zentzua	Problemak ebaztea	Aztertzea eta aplikatzea
20	Itxia	D	1	Zentzu aljebraikoa	Arrazoitzea eta probatzea	Arrazoitzea eta hausnartzea
21	Erdi-eraikia	Ikus II. atala	2	Zentzu estokastikoa	Arrazoitzea eta probatzea	Arrazoitzea eta hausnartzea
22	Itxia	Ikus II. atala	1	Zentzu estokastikoa	Arrazoitzea eta probatzea	Arrazoitzea eta hausnartzea

II. ZUZENDU BEHARREKO GALDERAK

Atal honetan zuzendu beharreko itemen **ebazpena** zein **zuzentzeko eta kalifikatzeko irizpideak** agertzen dira. Item hauek dira zuzendu eta kalifikatu beharrekoak:

1, 2, 3, 5, 6, 7, 8, 10, 13, 14, 15, 18, 19, 21 y 22


1. BURUZKO KALKULUA:

A kalkulua	Iratxek hiru gazta erosi ditu. Gazta bakoitzak 25 euro balio badu, zenbat euro ordaindu du guztira? 75 €
B kalkulua	Gaur goizean harizti batean ibili naiz. Hasteko, 34 minutu eman dut paseoan; ondoren, hamaiketakoa egitera gelditu naiz; azkenik, beste 26 minutu gehiago jarraitu dut paseoan. Guztira, zenbat minutu eman dut paseoan? 60 minutu
C kalkulua	Kepak badu 900 gramoko gazta bat, eta hiru zati berdinetan banatu nahi du. Zenbat gramo pisatuko du zati bakoitzak? 300 gramo
D kalkulua	$4 \times 9 : 6 =$ (4 bider 9... - 2 segunduko etena - zati 6, berdin...) 6
E kalkulua	$8 + 7 - 9 + 6 =$ (8 gehi 7... - 2 segunduko etena - ... ken 9 ... - 2 segunduko etena - ... gehi 6, berdin...) 12
F kalkulua	$56 : 7 \times 9 =$ (56 zati 7 ... - 2 segunduko etena - ... bider 9, berdin ...) 72

Zuzentzeko irizpideak	
Puntuazioa	Erantzunak
0-3	0,5 puntu erantzun zuzen bakoitzeko.

2. Begiratu ezkerreko irudiari: Olaztiko plazako kioskoaren zoruaren marrazkia da. Zenbat triangelu daude guztira?

Guztira **16** triangelu daude.



Zuzentzeko irizpideak	
Puntuazioa	Erantzunak
1	Erantzun zuzena.
0	Erantzun okerra edo erantzunik ez.

3. Kalkula ezazu zenbat biztanle dituen Altsasuk, pista hauei jarraituz:

- Lau zifrako zenbaki bat da, sei mila baino handiagoa.
- Milako unitateen zifra eta ehunekoen biderkatzearen emaitza 35 da.
- Zenbaki horren zifra guztien batura 16 da.

Idatzi lauki bakoitzean dagokion zifra.

Altsasun gaur egun



biztanle daude.

Zuzentzeko irizpideak	
Puntuazioa	Erantzunak
1	Erantzun zuzena.
0	Erantzun okerra edo erantzunik ez.

5. Gaztandegian tamaina eta pisu bereko bi gazta zeuden. Iratxek gazta erdia erosi du, eta Kepak beste gaztaren bi laurden.

Nork erosi du gazta gehiago? **Biek berdin erosi dute.**

Zergatik?

- $1/2 = 2/4$ delako.
- Gazta batek bi erdi eta lau laurden dituelako.



OHARRA: bi galderetan erantzun baliokideak ontzat joko dira.

Zuzentzeko irizpideak	
Puntuazioa	Erantzunak
2	Erantzun zuzena ETA ondo arrazoituta. (Balizko arrazoibideak: - $1/2 = 2/4$ delako. - Gazta batek bi erdi eta lau laurden dituelako. -)
1	Erantzun zuzena BAINA arrazoitu gabe.
0	Erantzun okerra edo erantzunik ez.

6. Udazkenean familia bat Etxarri Aranazko haritz zaharrak ikusten egon zen. Hosto batzuk bildu zituzten eta koadro bat egin zuten. Koadroak 56 cm-ko zabalera du, eta 44 cm-ko garaiera. Zenbat zentimetro neurtzen du koadroaren perimetroak?



Idatzi eragiketa edo eragiketak, eta soluzioa.

Egin beharreko kalkuluak:

$$56 + 56 + 44 + 44 = 200 \text{ cm (edo } 56 \cdot 2 + 44 \cdot 2 = 200 \text{ cm)}$$

200 cm

Koadroaren perimetroak **200** zentimetro neurtzen du.

Zuzentzeko irizpideak	
Puntuazioa	Erantzunak
1	Planteamendu zuzena burutu du eta emaitza zuzena idatzi du.
0	Planteamendu edota erantzun okerra, edo erantzunik ez. Era berean, eragiketa adierazi gabe erantzun zuzena idazten badu, ez da puntuatuko.

7. Arbizuko harategi batean honako hauek saldu zituzten apirilean:

- 1. astean 10 kg txistor saldu zuten.
- 2. astean aurrekoaren bikoitza saldu zuten.
- 3. astean saldu zuten 1. astean baino 15 kg gehiago.
- Apirileko lau asteetan 80 kg saldu zuten.

LEHEN GALDERA. Zenbat kg saldu zuten, guztira, lehen hiru asteetan?

Egin beharreko kalkuluak:

Ebazteko hainbat modu dago. Adibidez:

2. astean: $10 \times 2 = 20$ kg

3. astean: $10 + 15 = 25$ kg

Guztira: $10 + 20 + 25 = 55$ kg

Lehen hiru asteetan **55** kg txistor saldu zuten.

Zuzentzeko irizpideak	
Puntuazioa	Erantzunak
1	Planteamendua ondo egin du, emaitza zuzena lortu du eta idatzi du.
0	Erantzun okerra edo, erantzun zuzena izanik ere, inolako planteamendurik ez dagoenean.

BIGARREN GALDERA. Zenbat kg saldu zuten laugarren astean?

Egin beharreko kalkuluak:

Ebazteko hainbat modu dago. Adibidez:

4. astea: $80 - 55 = 25$ kg

Lehen hiru asteetan **55** kg txistor saldu zuten.

Zuzentzeko irizpideak	
Puntuazioa	Erantzunak
1	Planteamendua eta erantzun zuzenak 1. galderaren erantzunetik abiatuta.
0	Erantzun okerra edo, erantzun zuzena izanik ere, inolako planteamendurik ez dagoenean.

OHARRA. Item honen puntuazioa aurreko bi puntuazioen arteko batura izango da.


8. Lakuntzako lau lagun Beriain mendira igo dira.

Begiratu taulan aurten zenbat aldiz igo diren:

Eneko	Ana	Mikel	Irati
48	60	36	40



Irudikatu datu hauek honako grafiko honetan:




Zuzentzeko irizpideak	
Puntuazioa	Erantzunak
1	Diagramako barra guztiak ondo marraztu ditu dagokien altuera ondo jarritz (36 eta 60koa erdi-erdian).
0	Bestela.

OHARRAK. Batetik, irudiko barra-diagrama erabili beharrean, datuak puntuen bidez edo marra bertikal finen bidez edo marra horizontalen bidez (barra itxi gabe) adieraziko balituzte, ontzat joko da erantzuna. Bestetik, (Ana, 60) eta (Mikel, 36) balio-pareak irudikatzean, graduazio-marra horizontalen erdialdera hurbildu behar dute ikasleek erantzuna ontzat joko bada.

- 10.** Familia bat autoz joan da Uharte Arakildik Aralarko San Migel santutegira. San Migel santutegia bisitatu ondoren, Lekunberrira joan dira bazkaltzera. Jarraian, Uharte Arakilerara itzuli dira Irurtzundik.

Begiratu irudian ibilbidea eta tarte bakoitzaren distantziak:



Zenbat kilometro egin dituzte guztira?

Idatzi eragiketa edo eragiketak, eta soluzioa.

Egin beharreko kalkuluak: era askotan egin daiteke. Adibidez,

(1. aukera)

$$950 \text{ m} + 560 \text{ m} + 490 \text{ m} = 2000 \text{ m} \quad 2000 \text{ m} = 2 \text{ km}$$

$$10 \text{ km} + 20 \text{ km} + 26 \text{ km} + 2 \text{ km} = 58 \text{ km}$$

(2. aukera)

$$10950 \text{ m} + 20560 \text{ m} + 26490 \text{ m} = 58000 \text{ m} \quad 58000 \text{ m} = 58 \text{ km}$$

Guztira, **58** kilometro egin dituzte.

Zuzentzeko irizpideak	
Puntuazioa	Erantzunak
2	Planteamendua zuzen burutu du, emaitza zuzena lortu du eta idatzi du.
1	Planteamendua zuzen egin du, baina akats bakar bat egin du kalkuluetan (akats bat baino gehiago egiten badu, ez da puntuatuko).
0	Erantzun okerra edo erantzunik ez. Era berean, eragiketa adierazi gabe erantzun zuzena idazten badu, ez da puntuatuko.

13. Sakanako txirrindulari-talde batek irudiko bizikleta eta motxila erosi ditu.

Billete eta txanpon hauekin ordaindu du.



Zenbat euro ordaindu ditu bizikletagatik?

Egin beharreko kalkuluak:

Ebazteko hainbat modu dago. Adibidez:

$$50 + 50 + 50 + 20 + 20 + 20 + 10 + 5 + 5 + 2 + 2 = 234 \text{ (buruz egitea ere onartzen da.)}$$

$$234 - 48 = \mathbf{186 \text{ €}}$$

Guztira, **186** euro ordaindu ditu bizikletagatik.

Zuzentzeko irizpideak	
Puntuazioa	Erantzunak
1	Planteamendua ondo egin du, emaitza zuzena lortu du eta idatzi du.
0,5	Planteamendua ondo egin du, baina akats bakar bat egin du (kalkulu akatsa – batuketan ala kenketan – edo billete edota txanpon guztiak ez ditu zenbatu). Akats kopurua handiagoa bada, ez da puntuatuko.
0	Planteamendu okerra eta bukatu gabea. Era berean, 0 kalifikatuko da soluzio bat idatzi duenean (zuzena izanik ere) inolako eragiketarik azaldu gabe.

14. Begiratu Sakanako mapari:




Adierazi X batez egia (E) ala gezurra (G) den.

	E	G
Bakaiku (H,3) laukian dago.	X	
Lakuntza (L,4) laukian dago.		X
Ziordia (A,5) laukian dago.	X	
Dorrao (F,4) laukian dago.		X

Zuzentzeko irizpideak	
Puntuazioa	Erantzunak
1	4 erantzunak zuzen.
0,5	3 erantzun zuzen.
0	0, 1 edo 2 erantzun zuzen.

15. Begiratu Sakanako mapari:



Koldo Altsasutik (D,3) irten da, eta ibilbide hau egin du:

- Bi lauki eskuinera.
- Lauki bat gora.
- Sei lauki eskuinera.
- Lauki bat gora.

Zein herritara iritsi da Koldo? Koldo **Lakuntza** iritsi da.

Zuzentzeko irizpideak	
Puntuazioa	Erantzunak
1	Erantzun zuzena.
0	Erantzun okerra edo erantzunik ez.

18. Begiratu irudian abeltzainaren semeak jarri dituen belarritakoak. Osatu segida, falta diren zenbakiak aurkitzeko.



Zuzentzeko irizpideak	
Puntuazioa	Erantzunak
1	Erantzun zuzena (1800).
0	Erantzun okerra.

- 19.** Baserri batean 67 esne-behi dago. Behi bakoitzak egunean 29 litro esne ematen baditu, zenbat litro esne emanen dituzte guztira maiatzean?

Egin beharreko kalkuluak:

Ebazteko hainbat modu dago. Adibidez:


$$67 * 29 = 1943 \text{ litro guztira eguneko}$$

$$1943 * 31 = 60233 \text{ litro guztira maiatzean}$$

Maiatzean, guztira, **60233** litro emanen dituzte.

Zuzentzeko irizpideak	
Puntuazioa	Erantzunak
2	Planteamendua ondo egin du, emaitza zuzena lortu du eta idatzi du.
1	Planteamendua ondo egin du, baina <u>akats bakar bat</u> egin du kalkuluetan (akats kopurua handiagoa bada, ez da puntuatuko: akatsa izango da maiatzak 31 egun dituela ez jakiteak).
0	Planteamendu okerra eta bukatu gabea. Era berean, 0 kalifikatuko da soluzio bat idatzi duenean (zuzena izanik ere) inolako eragiketarik azaldu gabe.



- 21.** Ondoko grafikoan abeltzain batek duen behi kopurua adierazten da, haien adinaren arabera:



Erantzuna	
2 urtetik beherako zenbat behi ditu?	46
2 urteko edo gehiagoko zenbat behi ditu?	84

Zuzentzeko irizpideak	
Puntuazioa	Erantzunak
2	Bi erantzunak zuzen.
1	Erantzun <u>bakar bat</u> zuzen.
0	Erantzun zuzenik ez, edo erantzunik ez.

22. Behatu kutxa berde eta urdina:



Behi bat kutxatik begiratu gabe aterako bagenu...

Irakurri ondorengo gertaerak, eta adierazi gurutze batez ea gertaerak ziurrak, posibleak ala ezinezkoak diren.

	Gertaera ziurra da	Gertaera posiblea da	Ezinezko gertaera da
A. Kutxa berdetik behi beltz bat ateratzea.		X	
B. Kutxa urdinetik behi txuri bat ateratzea.	X		
C. Kutxa urdinetik behi marroi bat ateratzea.			X
D. Kutxa berdetik behi marroi bat ateratzea.		X	

Zuzentzeko irizpideak	
Puntuazioa	Erantzunak
1	4 erantzunak zuzen.
0,5	3 erantzun zuzen.
0	0, 1 edo 2 erantzun zuzen.

III. KOADERNOA SOLUZIOEKIN


Azkenik, ikasleei emandako liburuxka bera ageri da atal honetan item bakoitzaren erantzuna adierazi dugularik.

1. BURUZKO KALKULUKO ARIKETA:


A kalkulua	Iratxek hiru gazta erosi ditu. Gazta bakoitzak 25 euro balio badu, zenbat euro ordaindu du guztira? 75 €.
B kalkulua	Gaur goizean harizti batean ibili naiz. Hasteko, 34 minutu eman dut paseoan; ondoren, hamaiketakoa egitera gelditu naiz; azkenik, beste 26 minutu gehiago jarraitu dut paseoan. Guztira, zenbat minutu eman dut paseoan? 60 minutu.
C kalkulua	Kepak badu 900 gramoko gazta bat, eta hiru zati berdinetan banatu nahi du. Zenbat gramo pisatuko du zati bakoitzak? 300 gramo.
D kalkulua	$4 \times 9 : 6 =$ (4 bider 9... 2 segunduko etenazati 6 berdin...) 6
E kalkulua	$8 + 7 - 9 + 6 =$ (8 gehi 7... 2 segunduko etena ... ken 9 ... 2 segunduko etena ... gehi 6 berdin...) 12
F kalkulua	$56 : 7 \times 9 =$ (56 zati 7 ... 2 segunduko etena ... bider 9 berdin ...) 72

Sakana

Sakanan hainbat jarduera egin daitezke: herriak bisitatu, hariztietan paseatu, Aralarko San Migel santutegira igo, bailarako produktuak erosi...



2. Begiratu ezkerreko irudiari: Olaztiko plazako kioskoaren zoruaren marrazkia da. Zenbat triangelu daude guztira?



Guztira **16** triangelu daude.

3. Kalkula ezazu zenbat biztanle dituen Altsasuk, pista hauei jarraituz:

- Lau zifrako zenbaki bat da, sei mila baino handiagoa.
- Milako unitateen zifra eta ehunekoena biderkatzearen emaitza 35 da.
- Zenbakiaren zifra guztien batura 16 da.

Idatzi lauki bakoitzean dagokion zifra.

Altsasun gaur egun

7

5

0

4

biztanle daude.

4. Urdiaingo bizilagun batek irudian ageri den gaztaren hiru laurden erosi ditu:



Zenbat pisatzen du erosi duen gazta zatiak?

- A. 600 gramo pisatzen ditu.
- B. 800 gramo pisatzen ditu.
- C. 900 gramo pisatzen ditu.
- D. 1000 gramo pisatzen ditu.

5. Gaztandegian tamaina eta pisu bereko bi gazta zeuden. Iratxek gazta baten erdia erosi du, eta Kepak beste gaztaren bi laurden.

Nork erosi du gazta gehiago?



Biek berdin erosi dute.

Zergatik?

- **$1/2 = 2/4$ delako.**
- **Gazta batek bi erdi eta lau laurden dituelako.**
- **.....**

6. Udazkenean familia bat Etxarri Aranazko haritz zaharrak ikusten egon zen. Hosto batzuk bildu zituzten eta koadro bat egin zuten. Koadroak 56 cm-ko luzera du, eta 44 cm-ko zabalera. Zenbat zentimetro neurtzen du koadroaren perimetroak?



Koadroaren perimetroak **200** zentimetro neurtzen du.

7. Arbizuko harategi batean honako hauek saldu zituzten apirilean:

- 1. astean 10 kg txistor saldu zuten.
- 2. astean aurrekoaren bikoitza saldu zuten.
- 3. astean saldu zuten 1. astean baino 15 kg gehiago.
- Apirileko lau asteetan 80 kg saldu zuten.

LEHEN GALDERA. Zenbat kg saldu zuten, guztira, lehen hiru asteetan?

Lehen hiru asteetan **55** kg txistor saldu zuten.

BIGARREN GALDERA. Zenbat kg saldu zuten laugarren astean?

Laugarren astean **25** kilogramo txistor saldu zuten.


8. Lakuntzako lau lagunek Beriain mendira igotzeko ohitura dute.



Begiratu taulan zenbat aldiz igo diren aurtan:

Eneko	Ana	Mikel	Irati
48	60	36	40

Irudikatu datu hauek honako grafiko honetan:




9. Arruazuko artzain bat arratsaldeko bostak laurden gutxitan belardira joan da ardiak ikustera. Etxera itzuli da 2 ordu eta 20 minutu geroago. Zer ordu markatzen zuen erlojuak etxera itzuli denean?



A.




B.



C.




D.



- 10.** Familia bat autoz joan da Uharte Arakildik Aralarko San Migel santutegira. San Migel santutegia bisitatu ondoren, Lekunberrira joan dira bazkaltzera. Jarraian, Uharte Arakilerantz itzuli dira Irurtzundik.

Begiratu irudian ibilbidea eta tarte bakoitzaren distantziak:



Zenbat kilometro egin dituzte guztira?

Guztira, **58** kilometro egin dituzte.

11. Begiratu Aralarko San Migelen irudi-pare hauei. Marra gorria simetria ardatz hartuz, zein aukeratan (A, B, C edo D) dira irudiak elkarren simetrikoak?

A.



B.



C.



D.



12. Begiratu Irurtzungo elizaren irudiari:

Zein irudi geometrikoren antza du dorreak?

- A. Zilindroa eta piramidea.
- B. Zilindroa eta triangelua.
- C. Kuboa eta piramidea.
- D. Prisma eta piramidea.



- 13.** Sakanako txirrindulari-talde batek irudiko bizikleta eta motxila erosi ditu.

Ordaintzeko beheko irudiko billete eta txanpon guztiak erabili ditu:



Zenbat euro ordaindu du bizikleta?

Guztira, **186** euro ordaindu du bizikleta.


- 14.** Begiratu Sakanako mapari:



Adierazi X batez egia (E) ala gezurra (G) den.

	E	G
A. Bakaiku (H,3) laukian dago.	X	
B. Lakuntza (L,4) laukian dago.		X
C. Ziordia (A,5) laukian dago.	X	
D. Dorrao (F,4) laukian dago.		X

15. Begiratu Sakanako mapari:



Koldo Altsasutik (D,3) irten da, eta ibilbide hau egin du:


- Bi lauki eskuinera.
- Lauki bat gora.
- Sei lauki eskuinera.
- Lauki bat gora.

Zein herritara iritsi da Koldo?

Koldo **Lakuntza** iritsi da.


Behiak

Hainbat behi arraza daude: esne-behiak, betizuak... Behi guztiak belarritakoan jarritako zenbaki batekin identifikatuta daude. Abeltzainek larreak hesitzen dituzte zutoinez, sokez eta alanbrez.



- 16.** Begiratu honako irudi honen angeluari.
Zer angelu osatzen du behiaren adarrak?

- A. Zorrotza.
- B. Laua.
- C. Kamutsa.
- D. Zuzena.



- 17.** Zein da zekorraren belarrian agertzen den zenbakiaren deskonposizio zuzena?

- A. $1 \text{ HM} + 2 \text{ E} + 7 \text{ H} + 9 \text{ B}$
- B. $1 \text{ HM} + 2 \text{ M} + 7 \text{ E} + 9 \text{ H}$
- C. $1 \text{ HM} + 2 \text{ M} + 7 \text{ E} + 9 \text{ B}$
- D. $1 \text{ HM} + 2 \text{ M} + 7 \text{ H} + 9 \text{ B}$



- 18.** Begiratu irudian abeltzainak jarri dituen belarritakoak. Osatu segida, falta den zenbakia aurkitzeko.



- 19.** Baserri batean 67 esne-behi dago. Behi bakoitzak egunean 29 litro esne ematen baditu, zenbat litro esne emanen dituzte guztira maiatzean?


Maiatzean, guztira, **60233** litro emanen dituzte.

- 20.** Abeltzain batek 385 behi eta 247 zekor ditu bere herrian, eta beste herri batean 56 behi gehigo. Behi eta zekor guztiak bildu ditu, 4 finkatan kopuru berdinetan banatzeko.

Finka bakoitzean sartuko duen behi-kopurua kalkulatzeko, zein eragiketa egin beharko ditu abeltzainak?



- A. $385 + 56$ batuko ditu, eta ateratzen dena zati 4 egingen du.
- B. $385 + 247$ batuko ditu, eta ateratzen dena zati 4 egingen du.
- C. $385 + 247 + 56$ batuko ditu, eta ateratzen dena bider 4 egingen du.
- D. $385 + 247 + 56$ batuko ditu, eta ateratzen dena zati 4 egingen du.

- 21.** Ondoko grafikoan abeltzain batek duen behi-kopurua adierazi da, haien adinaren arabera:



	Erantzuna
2 urtetik beherako zenbat behi ditu?	46
2 urteko edo gehiagoko zenbat behi ditu?	84

22. Behi batzuk ditugu sarturik bi eremutan, berdea bata, eta urdina bestea:



Behi bat begiratu gabe atera dugu. Irakurri ondorengo gertaerak, eta adierazi gurutze batez ea gertaerak ziurrak, posibleak ala ezinezkoak diren.

	Gertaera ziurra	Gertaera posiblea	Ezinezko gertaera
A. Eremu berdetik behi beltz bat ateratzea.		X	
B. Eremu urdinetik behi txuri bat ateratzea.	X		
C. Eremu urdinetik behi marroi bat ateratzea.			X
D. Eremu berdetik behi marroi bat ateratzea.		X	